EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

# EUSKAL HIPIKA FEDERAZIOA
# FEDERACIÓN VASCA DE HIPICA

# REGLAMENTO DE ORGANIZACIÓN Y DESARROLLO DE LAS COMPETICIONES OFICIALES

**Artículo 1.- Normativa aplicable.**

Será de aplicación en la presente reglamentación, lo señalado en los estatutos de la Federación Vasca de Hípica, la Ley 14/1998 de 11 de Junio del Deporte de País Vasco, R.D. 16/2006 de 31 de enero, de Federaciones Deportivas del País Vasco, y demás disposiciones reglamentarias señaladas al efecto por la Real Federación Española de Hípica y la Federación Ecuestre Internacional para cada disciplina, así como para temas generales, veterinarios y disciplinarios.

**Artículo 2.- Ámbito objetivo de aplicación.**

El presente reglamento tiene por objeto determinar las condiciones y requisitos necesarios para la celebración de concursos hípicos y competiciones oficiales deportivas en el ámbito geográfico del País Vasco, de conformidad con la normativa vigente en las diferentes disciplinas ecuestres y de aplicación por la Federación Vasca de Hípica.

No estarán contempladas en este Reglamento, las actividades encuadradas dentro de los programas de Deporte escolar, las cuales tienen su desarrollo directo a través de los correspondientes Decretos Forales emitidos por la Diputación Foral de cada Territorio Histórico.

**Artículo 3.- Ámbito subjetivo de aplicación.**

3.1.- Será requisito indispensable para tomar parte en los concursos y competiciones que sean convocados por la Federación Vasca de Hípica, poseer la correspondiente licencia federativa tramitada a través de las Federaciones Territoriales, y expedida por la Federación Vasca de Hípica, con los requisitos establecidos para cada tipo de competición o disciplina.

3.2.- Será también aplicable el presente reglamento, para aquellos clubs, agrupaciones y asociaciones deportivas que pretendan organizar concursos o competiciones deportivas en el País Vasco, debiendo estar adscritos a la Federación Vasca de Hípica, quien podrá, en su caso, y como requisito previo para autorizar la/s prueba/s que se soliciten,

recabar la ayuda de personal técnico federativo para constatar la idoneidad de las instalaciones, recintos, trazados y organización prevista para el evento, debiendo haber sido previamente homologados los recintos deportivos por la Federación Vasca de Hípica, para cuya homologación se tendrán en cuenta criterios de Seguridad, Higiene zoosanitaria, Prevención de Incendios, cobertura de Seguros, Personal docente, etc. etc.

Todas las competiciones tendrán nombrado un Delegado Federativo.

**Artículo 4.- Otros requisitos de participación.**

Serán de aplicación las normativas de la Real Federación Hípica Española y la Federación Ecuestre Internacional, sobre normativa y requisitos exigibles a los caballos participantes en las pruebas deportivas.

**Artículo 5.- Calendario de competiciones y Ávances de Programa.**

5.1.- Anualmente y de forma previa al inicio de cada temporada deportiva, se comunicará mediante los medios habituales, la apertura del calendario para solicitar la celebración de concursos y eventos deportivos oficiales, en el País Vasco, por parte de aquellos Comités organizadores que cumplan los requisitos señalados para ello.

5.2.- Una vez asignadas las fechas correspondientes, los Comités organizadores deberán remitir a la Federación Vasca de Hípica, los correspondientes avances de programa, con una antelación mínima de un mes al inicio de la competición para su aprobación, nombramiento de personal técnico y difusión.

**Artículo 6.- Reglamentación aplicable a cada dispciplina.**
6.1.- Dada la diversidad de modalidades existentes en la práctica de la hípica y sus diferentes formas de competición, para la celebración de los concursos o competiciones que pudieran convocarse al amparo de

la Federación Vasca de Hípica, se estará a lo que en cada caso se establezca como normativa aplicable para cada evento de forma directa y particular.

6.2.- Será de aplicación subsidiaria, lo señalado para cada una de las disciplinas, en sus correspondientes Reglamentos particulares, según tengan determinados la Federación Vasca de Hipica o, en su caso, la Federación Española de Hípica y la Federación Ecuestre Internacional

6.3.- En los temas disciplinarios que pudieran originarse en el desarrollo de los concursos o eventos celebrados al amparo de la Federación Vasca de Hípica, se aplicará lo señalado al efecto en el Reglamento de Régimen Disciplinario de la Federación Vasca de Hípica.

6.4.- Igualmente serán aplicables a las diferentes modalidades, de forma subsidiaria, lo señalado en los Reglamentos General, Disciplinario y Veterinario establecidos por la Federación Vasca de Hípica y la Real Federación Española de Hípica y Federación Ecuestre Internacional

La Secretaria

El Presidente

Aprobado en Asamblea General Extraordinaria el 24 de julio de 2007

GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

# EUSKAL HIPIKA FEDERAZIOA
# FEDERACIÓN VASCA DE HIPICA

## LEHIAKETA OFIZIALEN ANTOLAKUNTZA ETA GARAPENERAKO ERREGELAMENDUA

**1go artikulua.- Araudi aplikagarria.**

Erregelamendu honi, Euskal Hipika Federazioaren estatutuetan, Kirolari buruzko Euskadiko 14/1998 Legean, Ekainaren 11koa, Euskadiko Kirol Federazioei buruzko 16/2006 Erret-Dekretuan, eta Espainiako Hipika Erret-Federazioak eta Nazioarteko Zaldi Federazioak diziplina bakoitzerako, gai orokorretarako, albaitaritza eta diziplina gaietarako ezarririko xedapenak aplikagarri zaizkio.

**2. artikulua.- Aplikazio eremu objektiboa.**

Erregelamendu honen objektua Euskadiko lurralde eremuan burutzen diren zaldi lehiaketa eta txapelketa ofizialen baldintza eta betebeharrak zehaztea da, Euskal Hipika Federazioari aplikagarri zaion zaldi diziplina ezberdinen indarreango araudiarekin bat.

Eskola kirol programen barne dauden jarduerak ez dira Erregelamendu honetan aurrikusiko, zeintzuek Lurralde Historiko bakoitzeko Foru Aldundiak emaniko Foru Dekretuek zuzenean arautzen baitituzte.

**3. artikulua.- Aplikazio eremu subjektiboa.**

3.1.- Euskal Hipika Federazioak deituriko lehiaketa eta txapelketetan parte hartzeko beharrezkoa izango da Lurralde Federazioen bitartez izapidetutako eta Euskal Hipika Federazioak emaniko federazio lizentzia izatea, eta txapelketa edo diziplina bakoitzerako beharrezko baldintzak betetzea.

3.2.- Erregelamendu hau Euskadiko lehiaketa edo txapelketak antolatu nahi dituzten kirol klub, talde eta elkarteei ere aplikagarri izango zaie, hauek Euskal Hipika Federazioari atxikituta egon beharko direlarik, zeinak, kasuan kasu, eta eskaturiko frogak burutzea baimentzeko, federazio tekniko baten laguntza eskatu ahalko duen aurrikusitako instalazio, eremu, trazatu eta antolakuntza egiaztatzeko. Euskal Hipika Federaziak aurrez kirol eremuak homologatu beharko ditu, homologaziorako segurtasun, abere osasunezko higiene, sute prebentzio, aseguru estaldura, irakas pertsonal eta gainontzeko irizpideak izango dira kontuan.

Lehiaketa guztiek Federazio Ordezkari bat izango dute.

**Artículo 4.- Parte hartzeko beste baldintza batzuk.**

Kirol frogetan parte hartzen duten zaldiek bete beharreko araudi eta baldintzei buruzko Espainiako Hipika Erret-Federazio eta Nazioarteko Zaldi Federazioaren araudia aplikagarri izango da.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

**5. artikulua.- Txapelketen egutegia eta Programa Aurrerapenak.**

5.1.- Urtero, kirol denboraldia hasi baino lehen, ohiko bitartekoen bidez baldintzak betetzen dituzten antolakuntza batzordeei, Euskadiko lehiaketa eta kirol ospakizun ofizialak eskatzeko egutegiaren irekiera jakinaraziko zaie.

5.2.- Behin datak esleituta, Antolakuntza Batzordeek Euskal Hipika Federazioari programen aurrerapenak igorri beharko dizkie, txapelketa baino hilabete lehenago gutxienez, onarpenerako, pertsonal teknikoa izendatzeko eta bere hedapenerako.

**6. artikulua.- Diziplina bakoitzari aplikagarri zaion erregelamendua.**

6.1.- Hipika modalidateen aniztasuna eta txapelketa forma ezberdinak direla eta, Euskal Hipika Federezioaren babespean deitu litezkeen lehiaketa edo txapelketak ospatzeko, ospakizun bakoitzerako ezarriko den araudi zuzen eta berezia bete beharko da.

6.2.- Subsidiarioki, diziplina bakoitzerako Euskal Hipika Federazioak edota, kasuan kasu, Espainiko Hipika Federazioak eta Nazioarteko Zaldi Federazioak zehaztutako Erregelamendu Berezietan ezarririkoa bete beharko da.

6.3.- Euskal Hipika Federazioaren babespean burutzen diren lehiaketa edo ospakizunetan sor daitezkeen gainontzeko diziplina gaietan, Euskal Hipika Federazioaren Diziplina Eraentzaren Erregelamenduan ezarritakoa aplikatuko da.

6.4.- Era berean, modalitate ezberdinei, subsidiarioki, Euskal Hipika Federazioak, Espainiako Hipika Erret-Federazioak eta Nazioarteko Zaldi Federazioak, Erregelamendu Orokorrean, Diziplinarioan eta Albaitaritza – Erregelamenduan ezarririkoa aplikatuko zaie.

Idazkaria

Lehendakaria

2007ko uztailaren 24ko Ez - Ohiko Batzar Orokorrean onartua